



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain



zuzendariari@egunkaria.com



943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 le-
rro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea
eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak
bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari

Berriz ere erre zuten Angiluerreka

Ekainaren 17an berriz ere erre zuten Agoizko Angiluerreka izeneko elkartea. Orain dela hiru bat hilabete antzeko *zortea* izan zuen, eta esan beharra dago sua ez duela piztu, hain zuzen ere, tximistaren batek edota tankera horretako beste zerbaitek. Garbi gelditu da, bi kasuetan ere, pertsonaren batek edo gehiagok, nahita piztu dituela sute horiek.

Komunikabideetan entzun denez, lehenago ere beste bi aldiz erre omen zuten elkarte hori. Beraz, ekintza horiek ez dira batere makalak izan.

Jakina, hemen ñabardura garrantzitsu bat egin behar da, alegia, Agoizko *zorioneko* Angiluerreka elkartea, erdaltzalea ez dakit den ala ez, baina ziurra da euskaltzalea behintzat badela, besteak beste, eta noski, hortik heldu dira *arazo* guztiak.

Antza denez, Agoitzen edo bere inguruetan bada jendea, euskara eta bere kultura ez maitatzeaz gain, gorroto ere gogotik gorrotatzen dituen, eta ez euskara/kultura soilik, baizik eta pertsona euskaltzaleak ere bai. Bestela, nola uler litezke tamaina horretako astakeriak?

Ikusi beharko dugu, bada, Nafarroako *nortasuna* jeloskortasunez gordetzen aritzen omen direnek, eta guztiz toleranteak bide direnek, nola salatzen eta kondenatzen duten ekintza antidemokratiko hori. **Xanti Begiristain Madotz • IRUÑEA**

Historiografia klasikoaz

Izen honekin nik deituko nuke kultur klasikotik, bere burua universalizat duena, egiten den historiografia. Hala nola, bi adibide jartzeagatik,

Estrabonek pintatzen dituen euskaldunak oso gerlari handiak bezala, Ares jainkoa gurtzen zutenak sutsuki, izanik jainko hau gerrarena eta Homerok deskribitzen du furi-bundo, inplakablea, bere lantzarekin soldadu iladak akabatzen dituen. Hauxe kontrajarria dago Martinez Lizarduikoak bere azken liburuan esaten duenakin, non euskal kultura azken aztarna bezala ikusia den zibilizazio batena, Europa preindoeuropearrean zabaldua zegoena, nekazaritza ezagutzen zuena eta matriarkala, ez patriarkala behintzat, eta pakezalea zena. Baina klasiko horiek euren universalitasuna salbatu behar dute eta salbuespenik ez dute euren itsutasunean ikusten inon. Salbuespenak, eta kultur hauek redistributiboak izanik salbuespen ikaragarria egiten diote kultur klasikoari, kultur tragikoari, eta ondorioz kultur horren universalitasuna kolokan jartzen dute, baina historiografia klasikoan, gure eskoletan irakasten dena oraindik, ignoratu beharrean aurkitzen da eta ixildu beharrean fenomeno historiko guzi hauek, eta gestu guttiz ignoratu egiten ditu, egia ere azken finean ignoratuz. Nik, hala ere, ideologia dominantea bada ere, esperantza fundatua daukat egia arrakastatsu aterako dela pugna honetatik. Kultur klasikoari banderilla erabakiorra jartzen bazaio ere horrela, termino taurinoa erabiliz, bere azkena universal bezala prestatzeko. **Roman Garmendia • SORALUZE (GIPUZKOA)**

Norbega S.A. Coca-Colaren zuzendari jauna

Orain dela 113 urte EEBBetatik bizitzaren txinparta mundura zabaldu

zen. John Pemberton botikariak Atlantan 1886. urtean, koka hostoz eginik, Coca-Colaren formula asmatu zuenetik, herriz herri, kontinentez kontinente, mundu osoan zehar hedatu da, ingelesez, frantsesez, alemanieraz eta ia-ia munduko hizkuntza guztietan; Txinaraino ere heldu da *edabe zoragarria* (txineraz noski).

Zuek, Coca-Colaren agintariek, ez duzue inoiz azaldu nahi izan edabearen konposaketa.

Txikitan, eskolan nengoen, Galdakaon duzuen Norbega fabrika bisitatzea eraman gintuztela gogoratzen dut. Han Coca-Cola fabrikatzen ikusi genuen, baina haren formula *sekretoa* zela esan ziguten. Azken finean fede kontua zen.

Zenbait urte igaro ondoren, Coca-Cola Companyk duen ospearean zoritarreko, Belgikan fabrikatu dituzten botilak kutsatuak izan dira. Ez dakigu orain epaile europarrek, *formula* azaldu arazi beharko ote duten.

Douglas Ivester jaunak, Coca-Colako presidentek, bere produktuen lehentasuna kalitatea dela-eta beraien arrakasta konfidantza horretan oinarritu dela esan du.

Aldi berean Coca-Cola Españañak diru asko gastatu du egunkarietan, bitan izan ezik (*Gara* eta EUSKALDUN EGUNKARIA, behar bada beraien erosleek Coca-Cola ez dutelako edaten?), iragarkiak ordaintzen *kontsumitzaileei* azalpenak emateko.

Une egokia da Ivester jaunari eta zuei ere, Norbegako agintariei, Euskal Herrian zaudetela gogorarazteko, berton Coca-Cola egiten eta saltzen duzue etiketak, fidagarritzat hartuak izatea nahi baduzue behintzat. Euskal Herrian... Euskaraz! **Dabi Alonso • Bilboko HBko zinegotzia**

galdeiozu...



Fermin Muguruza

MUSIKARIA

Euskaraz abestu daitekeela eta Espainian arrakasta izan gainera erakutsi duzu. Jarrerak aldatzen ari dira? Tolerantzia handiagoa dago musikaren munduan?

Andoni Elkorro [Bergara]

■ LEHEN eta orain, euskal musikari arreta eskaintzen dioten hedabideak berak dira. Irrati edo telebisten bidez aukerarik egonez gero hemen egiten dena zabaltzeko, gauzak nabarmen aldatuko lirateke, baina zoritxarrez multinazionalak, tolerantzia gutxiarekin, finkatzen dute zer entzun dezakeen jendeak eta hor euskarak ez du tokirik, jarrerak batzuk aldatu izan arren. Bakarrik lan izugarria eginez eta urteen poderioz irits zaitezke ikus-entzuleria zabal batera, besterik ez dut ezagutzen.

Uztailaren 13tik aurrera
Mikel Aizpuru • UEUKO
ZUZENDARIA izango da
Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •

